

**Graduada en Maestro en Educación Primaria
Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Gadua**

**Trabajo Fin de Grado
Gradu Bukaerako Lana**

Euskara eta erdara, txandaketak eta kalkoak Lehen Hezkuntzako eskolako haurren produkzioan.

Ikaslea: Lorea Ike Ibarra

Bideorako esteka: <https://youtu.be/NpeXyulgRvk>

Tutor/Tutorea: Orreaga Ibarra Murillo

Departamento/Saila: Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika

**Campo/Arloa: Filologia eta
Hizkuntzaren Didaktika**

**Hilabetea, urtea:
2022ko maiatza**

Euskara Eta Erdara, Txandaketak Eta Kalkoak Lehen Hezkuntzako Eskolako Haurren Produkzioan.

Ikaslea / Estudiante

Lorea Ike Ibarra

Izenburua / Título

Euskara eta erdara, txandaketak eta kalkoak Lehen Hezkuntzako haurren produkzioan / Euskara y castellano, cambios y calcos en las producciones de los niños en Educación Primaria.

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Orreaga Ibarra Murillo

Saila / Departamento

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika / Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2021/2022

Seihilekoa / Semestre

Udaberria/Primavera

HITZAURREA

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka.

Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan. Oinarrizko prestakuntzako modulua osatzen duten ikasgaien inguruan arituz esan beharko genukeen lehenengo gauza honakoa izango litzateke: ikasgai guztiak eta hauean lortutako ezagutza ezberdinak baliagarriak suertatu zaizkigu lan hau aurrera eramateko. Egia da, batzuk beste batzuk baino baliagarriago suertatu zaizkigula, nahiz eta zehazki lortutako jakintza guztiak ez ditugun landuko. Landu ditugun gaiak lan osoan zehar ikusteko aukera izango ditugu, baina ez zati ezberdinetan berezita.

Didaktika eta diziplinako moduluak aipatuz, marko teorikoa osatzeko oso baliagarria izan zaigula esan beharko genuke. Eta honekin lotuta, Hizkuntzaren Didaktikaren inguruan izan ditugun bi irakasgaiak ere aipatzekoak izango lirateke. Nabarmendu genitzakeen irakasgaiak lehenengo urteko Psikologia eta Soziologia izan litezke. Lehenengoa ikasleen garapenaz konturatzeko, hauek tratatzeko

era zuzentzeko eta jarduteko modua ezagutzeko baliagarria izan zaigu. Bigarrena aldiz, prestatutako inkestak ahalik eta osoen egoteko. Arestian esan bezala, lanean zehar ikusiko dugunez, Hizkuntzaren Didaktika I eta Hizkuntzaren Didaktika II baliagarriak izan zaizkigu ere marko teorikoa osatzeko, eta hauekin lotuta Euskarazko Komunikazio Trebetasunak ahalik eta zuzenen idazteko orduan ere oso interesgarriak iruditu zaizkigu. Aurreko paragrafoan aipatutako irakasgaiak baliagarriak izan zaizkigu ere perpaus motak aztertzeko eta kalko okerrak kontutan hartzeko. Ondorioz, marko teorikoa osatzeko ere oso baliagarriak izan dira.

Practicum moduluak klasean adi egoteko eta aldi berean behatzen eta datuak hartzeko aukera eman digula esan beharko genuke. Bigarren eta hirugarren praktikek laugarren ikasturteko zatirik garrantzitsuena hartu dute eta hauek askotariko egoera ezberdinak bizitzeko aukera eman digute. Aipatzekoa da, baita ere, azken praktika hauek Corpusean izandako eragina; batez ere corpusa osatzerakoan.

Atal honi amaiera emateko, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira Sarrerako "prologo" a eta Ondorio orokorren atalak, baita hurrengo atalean aipatuko dugun laburpena ere (euskaraz eta ingelesez ere). Beste guztia euskaraz idatzita egongo da.

LABURPENA

Gradu-amaierako lan honen helburu nagusia D ereduko ikastetxe bateko haur elebidunen euskararen garapenari buruzko azterketa eta analisi bat egitea da. Bereziki, gaztelaniaren eta euskararen arteko kalkoak eta kode-aldaketa aztertzen dira. Azterketa hau Amaiur Ikastolan egin da, Iruñean dagoen D ereduko eskola batean. Azterketa lehen hezkuntzako hirugarren mailako haurrei egiten zaie, hau da, 8 eta 10 urte bitarteko ikasleei.

Egindako azterketa ahozko ekoizpenen corpus bat biltzean datza, non kalkoen eta txandakatzeen adibideak agertzen diren. Erabilitako metodologia behaketa sistematikoa izan da, “behatzailearen paradoxa” erabiliz datuak biltzeko. Horrela, ikastetxean erabilitako metodologia ere ebaluatu ahal izan dut. Ondorio gisa, esan dezakegu gaztelaniak eragin handia duela euskararen. Egoera hori arintzeko, unitate didaktiko bat diseinatu dut, euskararen irakaskuntza-maila hobetzeko eta adin horretako ikasleen ahozko produkzioa hobetzeko.

Hitz gakoak: ahozkotasuna, elebitasuna, kalkoa, kode aldaketa, hizkuntza ukipena.

RESUMEN

El objetivo principal de este Trabajo de Fin de Grado es hacer un estudio y un análisis acerca del desarrollo del euskera entre los niños bilingües de un centro del modelo D. En especial se analizan los calcos y el cambio de código entre la lengua castellana y la vasca. Este estudio se ha llevado a cabo en Amaiur Ikastola, una escuela situada en Pamplona y de modelo D. El análisis se realiza a niños y niñas de tercero de primaria, es decir, a estudiantes de entre 8 y 10 años.

El análisis realizado ha consistido en la recogida de un corpus de las producciones orales, en las que aparecen ejemplos de calcos y alternancias lingüísticas. La metodología utilizada ha sido la observación sistemática utilizando la recogida de datos mediante la “paradoja del observador”. De esta manera, he podido evaluar también la metodología usada en el centro. Como conclusión, podemos decir que el castellano influye con fuerza en el euskera. Para paliar esta situación, he diseñado una unidad didáctica, con el objetivo de mejorar el nivel de enseñanza del euskera y mejorar la producción oral del euskera del alumnado de esta edad.

Palabras clave: oralidad, bilingüismo, calco, cambio de código, contacto lingüístico.

ABSTRACT

The main objective of this Final Degree Project is to carry out a study and analysis of the development of Basque among bilingual children in a model D school. In particular, calques and code switching between the Spanish and Basque languages are analyzed. This study has been carried out in Amaiur Ikastola, a school located in Pamplona and of model D. The analysis is carried out on children in the third year of primary school, that is, students between 8 and 10 years of age.

The analysis consisted in the collection of a corpus of oral productions, in which examples of calques and linguistic alternations appear. The methodology used was systematic observation using data collection by means of the "observer's paradox". In this way, I have also been able to evaluate the methodology used in the center. As a conclusion, we can say that Spanish has a strong influence on Basque. To alleviate this situation, I have designed a didactic unit, with the aim of improving the level of teaching of Basque and improving the oral production of Basque of students of this age.

Key words: orality, bilingualism, calque, code switching, language contact.

AURKIBIDEA

INTRODUCCIÓN	8
1. MARKO TEORIKOA	9
1.1. NAFARROAN DAGOEN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA	9
1.2. KODE-ALDAKETA ETA KALKOA	12
1.2.1. KODE ALDAKETA	13
1.2.2. KALKOA	14
1.3. LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREKIKO HARREMANA	17
2. HELBURUAK	19
3. MARKO METODOLOGIKOA	20
3.1. AMAIUR IKASTOLA	20
3.2. AZTERKETA	22
4. ALDERDI PRAKTIKOA	31
5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	37
5.1. DESKRIPZIOA/JUSTIFIKAZIOA	37
5.2. HELBURUAK	37
5.3. EDUKIAK	38
5.4. JARDUERAK: MATERIALAK ETA BALIABIDEAK	38
5.5. JARDUERAK: ARIKETEN SEKUENTZIAK	39
5.6. EMAITZAK	40
CONCLUSIONES	42
BIBLIOGRAFIA	43
ERANSKINAK	45

INTRODUCCIÓN

Todos conocemos que en la comunidad foral de Navarra conviven dos lenguas, el euskera y el castellano. Por lo tanto, estas dos lenguas están en contacto constantemente desde hace muchos siglos. Este Trabajo de Fin de Grado tiene como objetivo analizar las influencias de dos idiomas, el castellano y el euskera en concreto. Asimismo, podremos analizar el cambio de código y el calco de estos dos idiomas. Este análisis se hará en una clase de modelo D en Pamplona, es decir, en un ámbito bilingüe. Alumnos y alumnas de tercero de primaria de Amaiur Ikastola, serán analizados respecto al lenguaje del habla del euskara. Es decir, este estudio está centrado en niños y niñas de entre 8 y 10 años.

Con este análisis, podremos ver la influencia que tiene el castellano respecto al euskera y cómo esto hace que no se hable correctamente este idioma. El español es un idioma generalmente más hablado que el euskera en Pamplona, por eso influye mucho en el habla del euskera, sobre todo. El castellano es un idioma más poderoso que el euskera, las dos conviven en una situación de diglosia. Llevando a cabo este análisis, podremos ver como se cometen cambios de código y calcos en el idioma. Estos son consecuencia de que vivimos en una ciudad bilingüe como es Pamplona. Casi es inevitable mezclar los dos idiomas y más siendo jóvenes o niños y niñas de primaria.

Los calcos nos hacen hablar incorrectamente el euskara, existen calcos erróneos y calcos aceptados, es decir, no erróneos. Esto es algo que se explicará más adelante.

En este trabajo lo que estudiamos es la oralidad, es decir, me fijaré en las producciones orales de los niños y analizaré estos cambios cuando hablan en euskara. Para ello, utilizaré una metodología adecuada que es la observación mediante la paradoja del observador. Este estudio de la lengua oral en esta etapa de primaria, puede servir también para complementar los estudios anteriores que han hecho otros investigadores en los que analizan interferencias y calcos en esta etapa escolar.

Aparte de eso, he creado una propuesta didáctica que tiene como finalidad mejorar el habla del euskara. Después de analizar la producción oral infantil, hemos diseñado una serie de actividades para estos alumnos y estas alumnas. Consisten en varios ejercicios donde los niños y niñas tendrán que hablar bastante en vasco para poder mejorar sus producciones orales en este idioma. De esta manera aprenderán a hablar mejor el euskera y desarrollarán la capacidad de hablarlo fluidamente.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. NAFARROAN DAGOEN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA


Jakina denez, erkidego elebidun batean bizi gara; hori dela eta, gaur egun, Nafarroan bi hizkuntza dira nagusia: euskara eta gaztelania. Bi hizkuntza hauen erabilera ez da orekatua, eta erabilera aldetik, hainbat alderdiren arabera, bat bestea baino gehiago hitz egiten da; pertsonaren arabera, zonaldearen arabera, bizimoduaren arabera...

Nafarroan euskararen mintzamenaren arabera hiru eremu ezberdintzen dira (Nafarroako Gobernu, 2018); euskalduna, mistoa (euskara eta gaztelera hitz egiten dena) eta ez euskalduna. Iparraldea euskalduna da, erdialdea mistoa eta hegoaldea ez euskalduna. Eremu euskaldunean eta mistoan euskara hizkuntza koofiziala da. Eremu ez euskaldunean berriz, ez da koofiziala.

Azken urte hauetan hainbat ikerketa soziolinguistikoren arabera, ikusi da gero eta euskaldun gehiago daudela Nafarroan. Ikerketa hauen arabera, argi dago Lehen hizkuntza soilik euskara izan duten biztanleria jaitsi dela, baina, euskara eta gaztelania ere lehen hizkuntza duten biztanleria igo da (Nafarroako Gobernu, 2018).

1. irudia

Lehen hizkuntza eremuaren arabera




Oharra: Biztanleriaren lehen hizkuntza eremuaren arabera iruditik egokituta, Nafarroako Gobernu, 2018, GBBI / ESyCV

Grafiko honetan ikusten den bezala, eremu euskaldunean dagoen biztanleriaren erdia baino gehiagok euskara izan du lehen hizkuntza bezala. Eremu mistoaren egoera, aldiz, desberdina da, oso ehuneko gutxikoa baita euskara lehen hizkuntza bezala daukatenak, gehienak gaztelera izan baitute, grafiko honetan ikusten den bezala.

2. irudia

Hizkuntza erabilera hizkuntza eremuaren arabera



Oharra: Hizkuntza erabilera hizkuntza eremuaren arabera iruditik egokituta, Nafarroako Gobernua, 2018, GBBI / ESyCV

Lehen esan bezala, erkidego elebidun batean erabat normala da hizkuntza bat bestea baino gehiago erabiltzea eta egoera ezberdinetan, gehienetan bat edo bestea nagusitzen da, elkarrizketatzailea, momentua eta egoeraren arabera bat ala bestea nagusitzen da. Nafarroako euskararen erabilerari dagokionez, ikerketa honen arabera, eremu mistoan, beste grafikoan bezala, oso hitzun gutxik erabiltzen dute euskara.

Ikerketa hau, Nafarroan egin zen 2018.urtean, 16 urte baino gehiagoko hitzunei. Iruña eremu mistoan kokatuz eta egoera larri hau ikusita, euskararen erabileraren aldeko apustua egin behar dela argi dago, izan ere, ikusten den bezala gaztelarak nagusitasuna hartzen ari baita.


Kontuan hartzeko beste alderdi bat, euskararen erabilera ona eta txarra izan behar dugu. Horretarako Nafarroako Gobernuak (2020) azaltzen dituen kategoriak argi izan behar ditugu:

- **Hiztun motak.** Hiru hiztun mota bereizi dira euskaraz mintzatzeko eta ulertzeko gaitasunaren arabera:
 - *Euskalduna*, euskaraz ongi edo nahiko ongi ulertzeko eta mintzatzeko gai dena.
 - *Euskaldun hartzailea*, euskaraz zerbait badaki ere, ongi edo nahiko ongi mintzatzeko gai ez dena.
 - *Erdalduna*, euskaraz ulertzeko eta mintzatzeko gai ez dena.
- **Elebidun tipologiak.** Hiru elebidun tipologia bereizi dira euskaraz eta erdaraz (oro har, gaztelaniaz) duten hizkuntza gaitasun erlatiboaren arabera:
 - *Euskal elebiduna*, euskaraz mintzatzeko erraztasun handiagoa duena erdaraz mintzatzeko baino.
 - *Elebidun orekatua*, euskaraz eta erdaraz mintzatzeko erraztasun bera duena.
 - *Erdal elebiduna*, erdaraz mintzatzeko erraztasun handiagoa duena euskaraz mintzatzeko baino.

Hiru hiztun mota horiek existitzen dira Nafarroan. Azpian dagoen grafikoari begira, eremu euskaldunean gehienak dira euskaldunak eta eremu ez euskaldunean gehienak erdaldunak dira. Eremu mistoan ere gehienak erdaldunak dira ere, eremu mistoa izanez.

3. irudia

Euskara gaitasuna hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Oharra: Euskara gaitasuna hizkuntza eremuaren arabera iruditik egokituta, Nafarroako Gobernua, 2018, GBB1 / ESyCV

Elebidunen artean, denbora pasata, aldaketa handiak egon dira, bereziki euskal elebidunen artean. Lehen, euskal elebidun askoz gehiago zeuden erdal elebidunak baino, orain aldrebes gertatzen da, euskal elebidun gutxiago dago eta erdal elebidun biztanleria igo da. Honekin gaztelera nagusitasuna hartzen ari dela ikusi ahal dugu, nahiz eta orain euskaraz ikasteko aukera gehiago dagoen, alegia, hezkuntzan euskara ikasteko ahalmena nagusitu da. Arazoa da eta aurrerago komentatuko da, euskara ikasketetan bakarrik erabiltzeko joera dagoela eta gaztelera beste momentu guztietan.

4. irudia

Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboaren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)



Oharra: Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboaren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%) iruditik egokituta, Nafarroako Gobernua, 2018, GBBi / ESyCV

1.2. KODE-ALDAKETA ETA KALKOA

Aurreko lerrootan ikusten den bezala, Nafarroan bi hizkuntza nagusi hitz egiten dira; euskara eta gaztelania. Honek eragiten duena da *diglosia* sortzea, hots, hiztun komunitate batean bi hizkuntzetako bat bestea baino gehiago erabiltzea. Hizkuntza batek besteak baino prestigio gehiago izaten du eta egoera ezberdinetan erabili ohi dira. Nafarroan argi dago gaztelera hizkuntza menderatzailea dela, hau da, euskara baino askoz gehiago erabiltzen dela orokorrean. Familia, egoera, bizimodua edo beste baldintzen arabera izango da gaztelania edo euskararen menderatzea edo indarra, baina orokorrean gaztelaniak botere handiago izaten du.

Bestaldetik, duela 50 edo 60 urte, Nafarroako biztanle askok euskara zeukaten lehen hizkuntza bezala, baina euskaraz ikasteko ez zegoen aukerarik. Gaur egun, alderantziz gertatzen da, biztanleria gazteak gaztelera izan ohi du nagusiki lehen hizkuntza bezala; baita euskarazko D ereduko zentroetan ere, baina, ikasketak euskaraz egiteko aukera izan dute, behintzat eremu mistoan eta euskaldunean.

Gure gaiari hurbilduz, alegia, egunerokoan bi hizkuntza ezberdinak erabiltzeak ondorio batzuk dakarzki; hizkuntza guztiak elkarren aldamenean daudenean eta biak erabiltzen direnean fenomeno batzuk ekartzen ditu. Haien artean, hizkuntzen arteko kode-aldaketa edota kalkoa. Urteak eta urteak bi hizkuntza erabiliz, haien arteko nahastea sortu ahal da eta azkenean biak erabili elkarriketa berberean.

Hori dela eta, GBL honetan ikertuko dudana hauxe da: euskara-gaztelaniaren artean sortzen den kode-aldaketa eta kalkoak eskolako umeen hizkeran oinarrituz, alegia, hizkuntzen arteko bi nahasmen mota hauek izanen dira aztergai. Euskara eta gaztelaniaren kode-aldaketa eta kalkoa zer da, noiz erabiltzen da, nork erabiltzen du, zeren arabera... argituko dut.

1.2.1. KODE ALDAKETA

Kode-aldaketa edo code-switching ingelesez, bi hizkuntza edo gehiago esaldi edo diskurtso berean erabiltzeari dagokio, hizkuntzen arau fonologikoak edo sintaktikoak errespetatuz. Hau da, hitzun berak diskurtso berean bi hizkuntza txandaka erabiltzea, edo hitzun beraren diskurtsoan hizkuntza desberdinetako perpausak edo perpaus-zatiak elkarren ondoan jartzea (Ibarra, 2011, 280.orr). Adibidez: “Momentu horretan oroitu nintzen *que no tenía las llaves de casa*”. Esaldi honetan euskaraz eta gazteleraz hitz egiten da. Perpaus bat gazteleraz eta bestea euskaraz dago, bi hizkuntzen arau fonologiko eta sintaktikoak ongi erabiliz. Honi kode-aldaketa deritzo.

Poplacken (1980) arabera, kode-aldaketan hiru mota daude: *tag-switching*, *intrasentential code-switching* eta *intersentential code-switching*. Euskarara itzulita, etiketa aldaketa, perpaus barruko aldaketak eta perpaus kanpoko aldaketak izango dira.

Lehenengoa, makulu-hitzak, interjekzioak, diskurtso markatzaileak... bigarren hizkuntz horretan sartzen direnean da. Hau da, euskaraz hitz egiten dugunean eta gazteleraz euskaraz egindako diskurtso horretan hitz hauek sartzen ditugunean. Adibidez: *hombre, pues, guay!, o sea, andal, y así...*

Perpaus barruko aldaketa izango litzateke perpausaren edo esaldiaren barruan kodez aldatzea. Aldaketa hori hitzaren mugen barruan ere gerta daiteke (adib. Izen sintagma, aditz sintagma, izena, adjektiboak eta abar solasaldiarena ez den beste hizkuntza batean agertzea) (Muñoa 2002, *apud* Romaine 1989). Hau da, esaldi berdinean hizkuntzaz aldatzea adibidez, “Ez zait ezer gustatzen *el melón con jamón*”.

Perpaus kanpoko aldaketei buruz hitz eginez, hauek esaldi osoari egiten diote erreferentzia. Esaldi bakoitza hizkuntza batean erreproduzitzea izango litzateke. Adibidez: “Gaur korrika egitera joan naiz *pero no me he cansado*”. Ibarra (2014) dioen bezala, diskurtsoa euskaraz egituratuta dago, eta txertatzen diren perpausak mota guztietakoak dira: kopulatiboak, baldintzazkoak, hautakariak, mendekoak eta perpaus erlatiboak.

Baldintzazko perpausak

Esaldi hauetan normalean bukaeran agertzen zaigu hizkuntza aldaketa, hau da, perpausaren bigarren zatian. Adibidez: “Eskolara joaten banaiz, *me voy a portar bien*”.

Perpaus kopulatiboak

Hemen y eta *eta* hitzekin gertatzen da. Hauek biak erabiltzen dira baina arruntagoa da y erabiltzea kode-aldaketa bat egitean. Adibidez:

- Benetan lapurtzen ikusi nuela *y encima me vió a mí también*.
- Atzo azokara joan nintzen eta *compré un par de naranjas*.

Perpauk hautakariak

Mota honetan *o* eta *pero* hitzak erabiltzen dira kode-aldaketa egiteko. Hauek izango lirateke esaldi mota hauen bi adibide:

- Bihar jatetxean bazkalduko dugu *o mejor nos quedamos en casa?*.
- Gazta-tarta egin nion nire lehengusinari *pero no le gustó nada*.

Mendeko perpauk

Esaldi hauek gaztelerazko *que* edo *lo que* hitzekin osatuak daude, adibidez:

- Zer egin ahal dugu? Egin ahal dugu *lo que sea*.
- Nire amak esan dit *que no deje suelto al perro*.

Perpauk erlatiboak

Hemen dauzkagu adibide batzuk:

- Zure aurrean badago gizon bat *que lleva los pantalones de color azul*.
- Bihar ikusiko dugu *al tipo de la nariz grande*.

Cidek (2014) kode-aldaketa mota honetan eman daitekeen beste adibide bat ematen du. Adibidez, elkarrizketa bati buruz hitz egitean eta beste baten hitzak esan nahi dituzunean beste hizkuntza batean esatea. Hau da, euskaraz hitz eginez, beste baten hitzak gazteleraz erreproduzitu. Adibidez:

- Eta berak esan zion: “Van a cerrar la tienda en diez minutos, yo iría ahora”

Kode-aldaketa euskaratik gaztelerara, alderantziz egiten direnak baino askoz gutxiago egiten da. Hau da, gazteleratik euskarara egiten diren kode-aldaketak askoz nabariagoak dira. Gaztelera hizkuntza gehiengoa da eta horregatik jendeak gehiago hitz egiten du. Honek eragiten duena da, euskaraz hitz egitean gazteleraz hitz egitea ere, kode-aldaketak eginez.

Kode txandakatzek funtzio ugari ditu (adierazkortasuna, hizkuntza bateko hizkuntza-gabeziak arintzea, etab.), eta, *vascuenzol*-en kasuan, euskarak jasaten duen diglosia egoerari erantzuten dio, kontrako norabidean (hau da, *espacuencean*) kodeak ia ez ditugulako txandakatzen, mailegu lexiko hutsa baizik, kasu gehienetan «hitz-berniz»-ak dei daitezkeenak. (Cid Abasolo, 2014: 13)

1.2.2. KALKOA

Garziak (2005) dioenez, hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egiturari esaten zaio kalkoa. [...]. Hitza ez da, berez, gaitzespenekoa. Askotan bezala, ordea (kritika hitzarekin,

adibidez, antzeko zerbait gertatzen da), txarrera hartzen da besterik gabe kalko hitza, hots, kalko oker zentzuan.

Nolanahi dela ere, ezin dugu kalkoa maileguarekin nahastu. Kalkoa hizkuntza batek beste baten egitura bera kopiatzea da. Mailegutza terminoak, adiera hertsian, kanpoko elementu (gehienetan, lexiko) baten transferentzia oso edo erabatekoa adierazten du; eta, beraz, kanpoko adierazle bat eta adierazi bat “inportatzea” edo hartzea esan nahi du (Alberdi 2009, apud Gómez 1998: 18- 43).

Adibidez, gaztelerazko *fútbol* hitza, euskaraz *futbol* esaten diogu. Hori mailegu bat izango litzateke. Gainera, hitz hori ingeleseko “football” hitzetik dator, beste mailegu bat dela. Kalkoez hitz eginez berriz, *bidailagun* hitza adibide jarrita, gaztelerazko *compañero de viaje* hitzetatik dator. Hitz hau hobetzekoa da *bidaide* edo *bidelagun* hitzekin, zeren literalki euskara itzulia baitago.

Beste adibide bat izan ahal da *arreta deitu* kasuarena, hau gazteleraren kalkoa da *llamar la atención*; honen ordez, hobe egongo litzateke *atentzioa eman* edota *deigarri izan/gertatu* erabiltzea:

- Su modo de andar *me llamó la atención*.
 - Kalkoa: Bere ibiltzeko moduak *arreta deitu* ninduen.
 - Hobetua: *Bere ibiltzeko moduak atentzioa eman zidan*.

Beste aldetik, mailegua eta kalkoa daukaten egiturak ere existitzen dira. Adibidez, gaztelerazko *compositor* hitza kalko bidez *konposagile* erabili ohi da batzutan. Hala ere, hobe egongo litzateke *konpositore* edota *musikagile* esatea. *Konposagile* hitza gaizki eratua dago, izan ere, *-gile* atzizkiak izenak ditu oinarri; *konposatu* (mailegua) + *-gile* (kalkoa).

Alberdik (2009), kalkoak sei motatan banatzen ditu: kalko semantikoak, kalko lexikoak, kalko lexiko-sintaktikoak, kalko fraseologikoak, kalko morfosintaktikoak eta kalko diskurtsiboak.

Kalko semantikoak

Kalko semantikoa, hitzen eta esaldien esanahietatik dator. Kanpoko ereduaren “barne-forma” (alderdi immateriala, alegia) imitatzen edo kopiatzen da (Alberdi, 2009). *Adibide konkretu bat jarriko dizuet* esaldia gaztelerako kalko bat da, zehazki *os voy a poner un ejemplo concreto* esalditik etorria. Zuzen esateko “adibide zehatz bat jarriko dizuet” esan beharko genuke.

Kalko lexikoak

Kalko lexikoa beste hizkuntza bateko barne-egitura itzultzea da, gure kasuan, gaztelerako barne-egitura euskarara itzultzea da. Beste hizkuntza bateko hitz bat kalkatzen denean, ez da kopiatzen kanpoko hitzaren azala edo adierazlea (osagai fonetikoa, alegia), bi alderdi hauek baizik: a) eredu-hitzaren morfologia-egitura; b) eredu-hitzaren esanahia (Alberdi, 2009). Mota honen barnean,

Kalkoen Behatokiak hiru azpi mota bereizten ditu. Lehendabizikoa eratorpena da eta gazteleraz datorren hitza zuzenean itzultzea da. Honen adibide, *alkatesa* da, gazteleraz *alcaldesa* esaten dena. Baina hitz hau ez da horrela itzultzen, *alkate* esaten zaio ere. Bigarren mota hitz-elkarketa da eta bere izenak esaten duen bezala, bi hitz elkartzan direnean sortzen da. Adibidez, *labur metraia*, *cortometraje* hitzetik dator eta itzultze literala da. Onartua daukaguna *film labur* da. Azkeneko mota hibridoa deitzen da eta mailegua eta kalkoaren elkarketa da. *Interpretari* da mota honetako adibide. Gaztelerako *interprete* hitzetik dator, hori izango zen mailegua, -ari sartzean kalko bat egiten ari gara eta kasu honetan ez da zuzena, *interprete* esaten zaio ere euskaraz, -ari sartzea ez da beharrezkoa.

Kalko lexiko-sintaktikoak

Mota honetan joskera sartzen dugu, hau da, sintaxia. Hau sartzean, adi egon behar dugu perpaus bateko hitzen ordena eta erlazioa betetzen duten funtzioetan. Adibidez, *nire etxeak 12 metro neurtzen ditu*, esaldi hau gazteleratik itzulia dago *mi casa mide 12 metros*. Ez da gaitzesten baina hobetu ahal da *nire etxea 12 metro luze da* esanez.

Kalko fraseologikoak

Mota honetan, esapideak sartzen dira adibidez. Hizkuntza bateko esapideak normalean ezin ditugu itzuli eta horiek kalko okerrak izango lirateke. Baina batzuetan esapideak gazteleratik euskarara itzuliak izan dira eta kalko onargarriak dira. Hemen bi azpi mota nagusi ditugu: lokuzioak eta kolokazioak. Lokuzioetan, bere izenak esaten duen bezala, egitura zehatz bat duten hitz multzo bat da, baina osatzen duten hitzetatik ezin da ondorioztatu bere esanahia. Adibidez, gaztelerazko *tomar el pelo* norbaiti iruzur egitea da. Esaldi honen kalkoa *ilea hartu* da baina euskarara ongi itzulia dagoena *adarra jo* da. Kolokazio motan, gazteleraz *en el mejor de los casos*, euskarara itzultzean *kasurik onenean* daukagu baina *onenean* bakarrik ongi egongo legoke esana. Beste azpi mota batzuk hizketa formulak eta paremiak dira. Haien adibide *sentitzen dut* edota *lan azkarra, lan zakarra* daukagu.

Kalko morfosintaktikoak

Bere izenak esaten duen bezala morfosintaxiarekin dauka zerikusia eta lau azpi mota dauzkagu. Izen-sintagma azpi motaren barruan “mutiko horiek lotsagabe batzuk dira” adibidea sartuko genuke. Adibide hau, *esos chicos son unos sinvergüenzas* gazteleraz dagoen adibidearen kalkoa da. Euskaraz, *mutiko horiek lotsagabeak dira* esanez aski da. Aditzan adibidez *-t(z)en* -rekin gertatzen da kalkoa. *Zinemara joaten gara?* gaztelerazko *vamos al cine?*-tik dator, esaldi horren kalkoa da, kalko okerra. Euskaraz *zinemara joanen gara?* zuzen esana dago. Perpausa azpi motan *tu actitud no me gusta nada* esaldiaren kalkoa *zure jarrera ez zait ezer gustatzen* daukagu. Euskaraz, *zure*

jarrera ez zait batere gustatzen esan beharko genuke. Azken azpi mota, perpausaren mailatik gorakoak da. *Gainbegirale bezala hartu dute* kalkoa, gazteleraz *lo han cogido como supervisor* esalditik dator. Baina euskaraz ez da horrela esaten, baizik eta *gainbegiraletzat hartu dute*.

Kalko diskurtsiboak

Mota honetan diskurtso markatzaileak eta kohesioa daukagu barne, hau da, diskurtsoaren mailan sartu ahal ditugunak. Diskurtso markatzaileen kalkoaren adibide bat *nire herrian Euskal Artzain txakurra eta Collie bezalako txakurrak daude*. Gazteleraz *en mi pueblo hay perros como el Pastor Vasco y el Collie* izango litzateke. Hau zuzen euskaraz esateko *nire herrian Euskal Artain txakurra, Collie-a eta halako txakurrak daude* esan beharko genuke adibidez. Kohesio aldean, *bere* hitzarekin kalkoak sortzen dira adibidez. *Si la altura de un triángulo es 3 cm y la base 5 cm, ¿cuál es su área?* esaldia gazteleraz dago eta euskarazko kalkoa *triangelu baten altuera 3cm-koa bada eta bere oinarria 5 cm-koa bada, zein da bere azalera?* izango litzateke. Esaldi hau euskara zuzenarekin esateko *zein da haren azalera?* esan beharko genuke.

1.3. LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREKIKO HARREMANA

Euskararen inguruko kode-aldaketak eta kalkoak, hizkuntza hau hitz eginez sortzen dira. Lehen Hezkuntzako graduarekin zerikusia daukala argi ikusi ahal dugu baina ikus dezagun zer jartzen duen curriculumean.

Curriculumean, “Euskara eta literatura, D eredu” atalera joan beharko gara eta hortik aurrera dagoena irakurri. Mintzamina oso garrantzitsua da hizkuntza bat ikasteko eta ongi erabiltzeko. Lehenengo hainbat gaitasun garatzeko helburuak ikusi ahal ditugu, haien artean hauek ditugu (Curriculum. Lehen Hezkuntza. 2. liburukia. 2007:43):

1. Eguneroko gaiekin loturiko ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea, jarduera sozial eta kulturalako testuinguru desberdinetan..
2. Europako eleaniztasunaren errealitatea baloratzea, eta Espainiakoa, eta euskararen aldaera linguistikoak, kultur aberastasuna direlako.
3. Ahozko hizkuntza modu espontaneo eta egokian erabiltzea norberaren intereseko edo eguneroko bizitzako gaietan (familia, zaletasuna, gaurkotasuneko gertaerak...), errespetuzko eta laguntzazko jarrera edukiz.
4. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren arauetara buruzko ezagutze baliatzea modu egokian, koherentean eta zuzenean idazteko eta hitz egiteko, eta ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko.
5. Ikaskuntzarako abileziak eta trebetasunak barneratzea eta komunikazioari buruzko ezagutzak eta estrategiak beste hizkuntza batzuetara transferitzea.

Helburu hauei erreparatuz, ikusi ahal dugu hizkuntza hitz egiteak garrantzia daukala eta baita kode-aldaketa eta kalkoarekin harremana daukala. Oso garrantzitsua da hezkuntzaren munduan hizkuntza eta komunikazioa lantzea. Honen inguruan helburu asko daude eta ez da inoiz lantzeari uzten. Egunero komunikatzen gara eta hau txikitatik lantzea komenigarria da. Hitz egitea eta ahoz adieraztea, lehen esan bezala, beti egiten dugu. Baita oso garrantzitsua da idatziz eta beste modu batzuetan adierazpena garatzea. Horregatik, honi buruzko hainbat helburu ikusi ahal ditugu.

Ondoren, edukiei buruz dio eta gure multzoa “entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea” izango litzateke, hau da, 1. multzoa. Baita 4. multzoa ere, “hizkuntzaren ezaguera”. Multzo hauen barruan gure gaiarekin zerikusia duten hainbat eduki aurkitu ahal ditugu (Curriculum. Lehen Hezkuntza. 2. liburukia. 2007:43):

- Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.
- Iritzia azaltzea plan eta ekintza batzuei buruzko argudio laburrak eta azalpenak erabiliz.
- Ahozko testuak sortzea ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak, elkarrizketak edo eztabaidak).
- Parte hartzea eta laguntzea gizarte harremanetako komunikazio egoeretan, bereziki bizikidetasuna sustatzera bideratutakoetan (eztabaida edo dilema moralak), komunikazio egoerari egokituz eta baliabide linguistiko egokiak erabiliz (elementu lexikoak, gramatikalak, fonologikoak...) eta diskurtso ordenatu eta koherente batez baliatuz.
- Eskolako eta gizarteko testuinguruan dagoen aniztasun linguistikoaren kontzientzia positiboa: euskalkiak eta kontaktuan dauden hizkuntzak.

Eduki hauek gure gaiarekin lotuta daude, hau da, kode-aldaketa eta kalkoarekin lotuta. Hauek zuzentzea eta identifikatzea garrantzi handia dauka Lehen Hezkuntzan baita gure egunerokoan ere. Euskara hizkuntzaren arauak ongi ezagutu behar dira gero hizkuntza hau hitz egiteko eta erabiltzeko. Modu formaleko nahiz ez-formaleko hiztegia jakin behar dugu eta modu hauetan mintzatzeko era ere. Haurrek hizkuntza bat zuzen hitz egiteko bideak behar dituzte eta horretarako dago hezkuntza. Lan honen gaiarekin lotuta dauden eduki anitz aurkitu ahal ditugu eta eskolan gauza hauek landu behar dira.

2. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia haurrek daukaten euskara maila ikustea da. Zehazki hizkuntza hau hitz egitean daukaten maila. Helburua haien maila ikustea eta aztertzea da, euskal hizkuntza eta gazteleraren arteko kode-aldaketei eta kalkoei arreta ipiniz. Azterketa hau eginez, haien akatsak eta hobekuntzak ikusi ahal ditugu eta zer alderdietan hobetu ahal duten. Horregatik, beste helburuetako bat da, ikasleentzat proposamen didaktiko bat sortu haien euskara maila hobetzeko mintzamenaren alderdian.

Helburu espezifikoak ere dauzkagu eta hurrengoak izango lirateke:

- Esparru teoriko bat sortzea hainbat informazio-iturriren bidez, ondoren behaketaren analisia egiteko.
- Gehiengoaren hizkuntzak gutxiengoaren hizkuntzan duen eragina ikustea, haien arteko harreman-egoera batean.
- Gaztelaniaren presentzia handiak nola eragiten duen euskara mintzatuan ikustea.
- Bi hizkuntza horien arteko bildutako kalkoak eta kode-aldaketak identifikatzea eta sailkatzea.
- Lortutako emaitzei buruzko ondorio propioak ateratzea eta aurretik egindako hipotesiak betetzen diren ala ez ikustea.
- Curriculumean eta ikasleen egoeran oinarrituz, euskaraz hitz egitea helburu daukan proposamen didaktiko bat sortzea.
- Proposamen didaktiko horretatik ondorioak atera.

3. MARKO METODOLOGIKOA

3.1. AMAIUR IKASTOLA

Nik egindako azterketa eta proposamen didaktikoa Amaiur ikastolako ikasleekin egingo ditut, izan ere, hemen ikastola honetan praktikak egiten ari naiz.

Iruñeko Amaiur Ikastola D eredu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa da. 1986. urtean sortu zen eta Iturrama auzoan dago, Iturrama eta Fuente del Hierro kaleen artean. Iruñerriko, Getzeko, Eskirotzeko eta Kordobilako ikasleak ikasten dute han.

Ikastetxe honen helburu orokorren artean hauek dauzkagu:

- Ikasle euskaldun eleaniztunak hezte, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta.
- Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna sustatzea.
- Ikasleen gaitasunak garatzea, eta, horretarako, metodologia aktiboak eta IKTak erabiltzen ditu.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien elkarlana eta kooperazioa sustatzea.
- Hezkuntza-proiektu integratzailea eta plurala sustatzea, ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta aniztasuna kontuan hartuta.

Azkenik, balio bezala kooperazioa, ingurunearekiko errespetua, euskararekiko jarrera positiboa, aniztasunarekiko errespetua, osasunerako hezkuntza eta indarkeriaren aurkako jarrera sustatzen da.

Eskola honek, zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu: Galar bailaratik autobusa edota guraso elkarteak kudeatzen dituen zerbitzuak; goizeko haurtzaindegia (7:45-9:00), jantokia, lo-kuluxka, guraso eskola eta euskarako klaseak helduentzat. Baita eskolaz kanpoko jarduerak badaude; informatika, mekanografia, margoketa, musikarekin jolasean, gitarra, pianoa, panderoa, txistua, trikitixa, bertsolaritza, xake, zirkoa, poliekintza, dantza, pilota, gorputza astindu, ingelesa eta futbito. Azkenik, haren hezkuntza eskaintza honakoa da:

- Euskara murgilketa: Euskal Astea, Euskara Kanpainak, Euskaraz Mintza Proiektua, Lecxit Programa, Bertsolaritza (LH5 eta LH6), Antzerkia.
- Ikaskuntza kooperatiboa geletan.
- Metodologia aktiboak: proiektuak, tailerrak, Montessori gela.
- 3. Hizkuntza, ingelesa, Haur Hezkuntzako 1. mailatik aurrera.
- Orientazio departamentua: orientatzailea, pedagogia terapeutikoko irakaslea eta entzumen eta hizkuntza irakaslea.
- Berdintasunean oinarritutako hezkuntza: Skolae Programa.
- Gaitasun digitala: monitore interaktiboak (LH5 eta LH6) eta arbel digitalak geletan.
- Chromebook ordenagailu gela eta liburu digitalak.
- Eskolako baratza proiektua. Iruñeko Udaleko ingurumen hezkuntzako zerbitzuarekin batera.

- Ekintza osagarriak: txangoak, kanpaldiak, hitzaldiak, ipuin kontalariak, mankomunitateko tailerrak...
- Jaiak: Olentzero eta Mari Domingiren eguna, danborrada, Agate Deuna, inauteriak, San Fermintxo, euri jasa.
- DBH eta Batxilergoa egiteko jarraipen bermatua Iturrama edo Biurdana institutuetan.
- Ikastetxeko kalitate kudeaketa sistema abian duena.

Ikastetxeak bi pisu ditu. Lehenengo pisuan, ezkerreko aldean, atezaintza, erizaindegia, zuzendaritza gela, idazkaritza gela, irakasle gela, jantokia eta irakasle komunak daude. Erdialdean, Haur Hezkuntzako 1. eta 2. mailako klaseak dauzkagu haien komunekin. Eskuinaldean, Haur Hezkuntzako 3. mailako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako klaseak daude, soinketa gelarekin batera. Bigarren pisuan, ezkerrean, musika gela eta beste irakasle komun bat dago. Erdialdean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako klaseak daude, Montessori gela, informatika gela eta beste irakasle gela batekin batera. Bukatzeko, eskuinaldean lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako klaseak, komunekin batera. Patiora beheko pisutik ateratzen da, horretarako hiru ate daude.

Covid-19arengatik, hainbat neurri berri jarri behar izan dira, musukoa eramatea eta segurtasun-distantzia bat izatea adibidez. Haietako beste bat, eskolako sarrera eta irteera moduan eragina izan du. Maila bakoitza ate zehatz batetik sartu eta atera behar da horrela, denak ate berdinean ez elkartzeko. Gainera, patio orduetan, klase bakoitzak bere patioko zona dauka. Zonak egunero aldatzen doaz, hau da, klase berbera ez doa beti patioko zona berberera.

5. irudia

Patiora sartzeko ateak eta itxoiteko eremua



Oharra: Patiora sartzeko ateak eta itxoiteko eremua iruditik egokituta, Amaiur Ikastola

6. irudia

Eraikinerako ateak



Oharra: Eraikinerako ateak iruditik egokituta, Amaiur Ikastola

Langileen artean, zuzendaria, ikasketa burua eta idazkaria dauzkagu. Hauek kontatu gabe, 21 irakasle gehiago daude (laguntzaileak kontuan hartuta); tutoreak, musikako irakaslea, PT irakaslea,

ingeleseko irakasleak, erlijio irakaslea, gorputz heziketako irakaslea... Azkenik, atezainak, eta garbitzaileak dauzkagu.

Maila guztietan bi klase bereizten dira, A eta B klaseak. Bakarrik 5. mailan hiru klase aurkitu ahal ditugu, A, B eta D klaseak. Klase bakoitzeko 17-24 haur aurkitu ahal ditugu.

1. taula

Ikasle kopurua klase bakoitzeko

Klasea	1. A	1. B	2. A	2. B	3. A	3. B	4. A	4. B	5. A	5. B	5.D	6. A	6. B
Ikasle kopurua	24	24	22	22	23	24	24	23	17	17	17	20	20

Ni 3. mailan nago, 3.B klasean. 24 ikasle daude eta lau sei taldeetan esertzen dira. Ikasle guztiak 2013. urtean jaioak dira, hiru ezik 2012. urtean jaio zirela, hau da, errepikatzaileak dira. Klasean 8 neska eta 16 mutiko daude. Badaude bi haien artean anaiak direnak, bikiak dira.

3.2. AZTERKETA

Nik prestatutako azterketa hau, 3. mailako klase bati egin nion, 3. B klaseari, lehen esan bezala, nire praktiketako klasean. Klasean zehar ikasleek euskaraz hitz egiten erabiltzen zituzten gaztelerako kalkoak eta kode-aldaketak apuntatu nituen eta koaderno batean bildu. Haien ez zekiten nik haien esaten zutena apuntatzen nuela.

Honekin "behatzailearen paradoxa" edo gazteleraz "La paradoja del observador" azaldu beharko litzateke. Labovek (1972, 1984), Fernandezek aipatua (2018: 142.orr) honakoa esan zuen: "Se trata de la materialización de un problema metodológico clásico de los estudios del lenguaje en su contexto social: los medios empleados para la recogida de datos interfieren, condicionan o modifican las características de esos mismos datos". Hau da, behatzailearen paradoxak behatutako fenomenoaren behatzailearen edo ikertzailearen beraren presentziak eragiten duen egoera bati egin dio erreferentzia.

Orduan nire azterketara bultzatuz, ikasleei haien hizkuntza eta hiztegiari buruz azterketa bat egin ari naizela esan banie, haien hitz egiteko modua aldatuko lukete. Gehienek, ez ziren normalean hitz egiten duten bezala mintzatu, seguraski haien euskara maila hobetzen saiatuko lirateke horrela nik emaitza hobek apuntatzeko eta abar. Honen ondorioz, nire azterketa faltsua izango litzateke, ez litzateke erreal izango, izan ere, egunerokoan hitz egiten duten modua beharrezkoa dut. Haien normalean egiten dituzten kalkoak eta kode-aldaketak behar ditut, bestela azterketa ez da baliagarria izango.

Haien esaldiak apuntatuz aparte, haien euskara maila eta egoera hobe ezagutzeko, ikasleei inkesta bat egin nien. Inkesta honek hainbat galdera ditu egunerokoan euskararen erabilerari buruz. Galderak banaka egin nizkien, horrela batzuen erantzunak besteenak ez eragiteko. Baita neskak eta mutilen erantzunak bereiziko ditut, eta generoak eraginik ote daukan ikusteko ere. Inkesta hau bi klaseei egin nien eta hauek dira egin nizkien galderak:

7. irudia

Galdetegia

GALDETEGIA	
1.	Izen-abizenak:
2.	Neska edo mutila zara?
3.	Egunean zehar zenbat hitz egiten duzu euskaraz?
4.	Zure gurasoek euskaraz badakite?
5.	Gurasoekin euskaraz egiten duzu?
6.	Familiarekin zaudenean euskaraz egiten duzu? (ez bakarrik gurasoekin)
7.	Lagunekin/ikaskideekin noiz egiten duzu euskaraz? (Ez ba dira jantokira joaten edo eskolaz kanpoko jarduerak egiten, ez zuten erantzun)
	<ul style="list-style-type: none"> ● Klasean ● Patioan ● Jantokian ● Eskolaz kanpoko jardueretan ● Beste momentu batzuetan
8.	Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz egiten dituzu? (Ez ba dituzte egiten ez zuten erantzun)
9.	Klasean zaudenean, irakasleari euskaraz egiten diozu?
10.	Euskaraz hitz egitea garrantzitsua iruditzen zaizu? Zergatik?

